

ESKUALDEA. Maria Esther Solabarrietak egitamuaren barri emon eban, atzo goizean

Iratxe Astuy | SUKARRIETA

Urdaibaiko eskualdea osotzen daben udalerrietako alkateak Maria Esther Solabarrieta Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saileko ahalguztari batzordeko zuzendaria, atzo goizean, Sukarrietako Ur Patzuegoko egoitzan. Batzar horretan, Oka ibai arroan martxan ipiniko diran azpiegitura hidraulikoen obren barri emon eban Solabarrieta ahalguztaria. Izan be, Urdaibaiko saneamendurako hainbat proiektu lotzen dihardue Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak alkarbarrean.

Maria Esther Solabarrieta ahalguztaria azaldukoaren arabera, guztira 61 milioi euroko aurrekontua gorde dabe egitamu guztiak aurrera eroan ahal izateko. Proiektuak bere bidetik badoaz, 2003. urtean hasita, 2007. urterako amaituta egongo litzateke Urdaibaiko saneamendua. «Egitamu nagusi honetan sartzen diran proiektuen nondik norakoak lotzen gabilz. Horreentzako asko, nahiko aurreratuta dagoz, ganera», baieztatu eban Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saileko burua, Maria Esther Solabarrietak.

Urdaibaiko saneamendua 2007rako eginda egongo da

Hainbat azpiegitura hidraulikoren proiektuak egiten hasiko dira, datorren urtetik aurrera

UR ARAZTEGIA

Lamiaran Aranburu gunean egin gura daben ur araztegia egiteko, Gobernu zentralaren berbea itxaroten dabe

Bost urteko epe horretan, sei behar egiteko asmoa daukie. Horreentzako nagusia da Muxikatik Bermeoraino doan urak batzeko hodiarena. Horretarako, 35,1 milioi euro emongo dauz Eusko Jaurlaritzak. «Obra hori zatika egingo da; eta, beti

UR ZIKINAK

Muxikatik Bermeoraino doan zikin urak batzeko hodiak 27 kilometroko luzerea eukiko dau, eta 35,1 milioi euroko kostua

be, Urdaibaiko legeek agintzen dabena kontuan izanda, gune babestu horretan ezelango kalterik emon ez daian», ziurtatu eban Ingurugiro Saileko arduradunak.

Muxikatik Bermeoraino doan ur kolektoreak 27 kilometroko

luzerea eukiko dau. Bertatikigarako diran zikin urak Lamiaran Aranburu gunean (Bermeo eta Mundaka artean) eraikitzeke asmoa daukien araztegi batzordeko litzateke. «Horretarako, Gobernu zentralaren berbea euki arte itxaron behar dogu», gogoratu eban Solabarrietak.

Idatzita dagoen beste proiektua da Busturialdeko ur horniketakako sistemarena. Hor sartzen dira, Gernika-Lumo, Ea eta Mendatzen egingo dabezan ur biltzeak. Horretarako 2,7 milioi euro aurrekontua lotu dau Eusko Jaurlaritzak.

Oka ibaiaren eskumako aldean, Gauegiz Arteagatik hasita Gernikaraino urak bideratzeko beste hodi bat egingo dabe. Obra hori Aldundiaren ardurapean geratuko da, 3,3 milioi euroko kostuagaz. Bermeo eta Gernika-Lumoko herri barruko saneamendurako proiekturako, bestalde, 10 milioi euro emongo dauz Aldundiak.

Uriolek eragiten dabezan kalteak gertatzeko, Bermeoko San Andres eta San Martinekoren errekek bideratuko dabe. Bestalde, Euren eraginez Elantxobeko mendi aldetara mugitu ez daiten, beharrezko neurriak hartuko dabe. Obra biotarako, ia 10 milioi euro gorde dabe.

GERNIKA-LUMO

Gabonetarako erosketak egiten ibili zan jentea, atzoko plazan

I.A. |

Abendua hasteko aste bate baino ez da falta. Hori be, igarrian egon zan, Gernika-Lumoko atzoko merkatu plazan. Izan be, bertara hurreratu zan jentea asko Gabonetarako erosketak egiten ikusi zan. «Jenerorik eroan ez dauana, behintzat, sasoi horretako produktuen salneurriak kontroletan etorri jaku» azaldu eban plazako baserriar batek.

Karakol kiloa, asteen be, 9 euroan ipini eben baserriarrek. Gabon madarien prezioa, baina, astebeteko epean 60 zentimotatik igon da. Joan dan asteen, madari kiloa 1,20 euroan emoten ebilen. Asteen, barriz, 1,80 euroan saltzen egon dira baserriarrek.

Frutu sikuei jagokenez, prezio bardienean jarraitzen dau intxaur kiloa: 4-5 euroan, hain zuzen be. Urretxa kiloa, barriz, 3 euroan dabil.

Sasoi honetan, indabak be estimazino handia eukiten dabe. Batez be, bertoko indabak. Garestiena be, berau izaten da. Kiloa 8 euroan emoten eben, atzo. Indaba zuria kiloa 6 euroan dago; eta baltzarena, 7 euroan.

Astero saltzen diran beste produktuen artean, letxuga burua dago. Atzo be, letxuga buru bakotxa 75 zentimotatik emoten ibili ziran. Tomate kiloa 3,5 euroan dabil; eta patata kiloa, 60 zentimotatik.

GERNIKA-LUMO. Zentroko arduradunek 3.750 euroko txeketa hartu eben BBK-ko ordezkariaren eskutik



IRATXE ASTUY

Gaztaiaren enkantean ataratako dirua Kaltzada egoitzeari emon deusie

Gernika-Lumoko Kaltzada zaharren egoitzako bizilagunek jai itzela egin eben, joan dan astegoienean. Udala eta BBK-ko ordezkariak be zentroraino hurreratu ziran, egoitzari opari bat emotekotan. Izan be, eta ur-

tero legez, Urriko Azken Astelehenean egiten dan gaztaiaren enkantea dirua Kaltzada zaharren egoitzeari eskaintzen jako. Bertako arduradunek 3.750 euroko txeketa hartu dabe, aurtan, BBK-ko ordezkari baten

eskutik. Diru hori egoitzako pertsonen bizi kalitatea hobetzeko erabiliko dabe. Sor Bisitación Kaltzada egoitzako mojen kongregazinoko nagusiak gernikarren borondate ona eskertu eban, txeketa hartzerakoan.

AGENDEA

GERNIKA

Erakusketa: Euskal Herria museoan erakusketa bat zabaldu barri dabe. *Detar-Desvio* tituluduna da, eta artistak Krug-Zulueta eta Begoña Zubero dira. Erakusketa 2003ko urtarrilaren 19ra bitarte ikusgai egongo da. Kultur Etxean, bestalde, Herencia erakusketa ikusi daiteke, zehazkiaren 27ra arte.

Tratu txarrak: Emakide taldeak eta Emakumeentzako Udak Zerbitzuak *Tratu txarrei aurre egiteko moduak* berbaldia atondu dabe, gaurko. Berbaldi hori Kultur Etxean egingo da, 17:00etan.

BERMEO

Erakusketa: Alejandro Graciak metalezko plantzen konposizioa dauka Nestor Basterretxearen.